

**Euskaltzaindiak  
batasunerako ebatzi dituen  
aditz batzuen formak  
lantzen dira fitxa honetan.**



ase  
eho  
eraso

# ASE

**ase** 1, ase, asetzen. *da/du* ad.

asetu\* e. **ase**

Ureztatzeko kanalek komunitate gehiagoren premiak **ase zituztenean**, kudeaketa eta kontrola koordinatu beharra etorri zen.

\*...**asetu** zituztenean...

Nekez **aseko du** argiak landare oso bat.

\* Nekez **asetuko** du argiak landare oso bat.





# ASE

- Lortu nahi dugun konposatua zetona **asea** da

*\*...zetona **asetua** da.*
- Airea oso gutxitan egoten denez ur-lurrunez **aset**a, asetze-maila erabil daiteke ur-edukiaren neurri erlatibo gisa.

*\*...ur-lurrunez **asetuta**...*
- 7,38 kPa-eko presioan **asetako** lurruna 30 °C-an dagoen hodi horizontal baten gainean kondentsatzen da.

*\*...**asetutako** lurruna...*

# EHO

**eho**, ehotzen. *du ad.*

ehotu\* e. **eho**

● Errotak 1970era arte **eho zuen** alea etenik gabe.

\* ...**ehotu** zuen alea etenik gabe.

*Sin. xehatu, xehe-xehe egin*

● –Habil hemendik: **ehoko hau**. atzematen bahu!

\* ... **ehotuko** hau, atzematen bahu.

*Sin. astindu, jipoitu, jo*

● Eskuz **eho dute** sarea.

*Sin. ehundu*



# EHO

- Muskobita-orriak eta muskobita **ehoa** askotariko osagaiak egiteko erabiltzen dira industria elektronikoan.

\* Muskobita-orriak eta muskobita **ehotua**...

- Buztinik ez duten mineralek silexa, xehe-xehe **ehotako** kuartzoa eta urgarriren bat izaten dute.

\*... xehe-xehe **ehotutako** kuartzoa

# ERASO

**eraso 1**, erasotzen. *dio ad.*

**Oharra:** Ez Hiztegi batuak ez Orotariko euskal hiztegiak ez dakarte **erasotu** forma; **ehotu** eta **asetu** baino asmatu berriago den seinale dugu hori. Nolanahi ere den, euskara batuan saihestekoa da; beraz:

erasotu\* erabil bedi **eraso**



Great Smoky mendietako gune jakin batean, zuhaitz hosto iraunkor askori **eraso die pinu-kakalardoak**.

\* **...erasotu die pinu-kakalardoak.**

Karbono nukleozale batek karbonilo talde bati **erasoko balio**, alkohol bat sortu eta karbono-karbono lotura bat eratuko litzateke aldi berean.

\* **...erasotuko balio...**

# ERASO

eraso 2 iz.  
erasoan  
eraso egin



- Kakalardo bonbaketaria **erasoan**.
- Makako muturgorriak, taldeko ar nagusiak **eraso egin diolarik**, harengana hurbildu eta imintzio batzuk egiten dizkio, eta lider onberak, orduan, besarkada ematen dio.





Fitxa honetako adibide gehienak  
[EHUskaratuak](#) corpuseko ikasliburuetatik  
 hartuak dira.